

# EBZren laugarren esku-hartzeak euroa bultzatzeko ezintasuna agerian utzi du

Lehen erreakzioan gora egin arren, berriro 0,86 dolarretik behera jaitsi da

Erredakzioa/ Donostia

Mundu guztia, euroa barne, Estatu Batuetara begira zegoela, Europako Banku Zentralak (EBZ) iragan ostiraletik laugarren esku-hartzea burutu zuen eta aurreko kasuetan bezala, hasieran moneta europarrak gora egin bazuen ere, 0,86 dolarreko muga psikologikoa iraganez, berehala jaitsi zen, ahalegina ezezean utziz.

EUROPAKO Banku Zentralak astebetean lau aldiz esku hartu du nazioarteko dibisa merkatuetan euroari bultzada emateko asmoz. Atzo goizean Europako moneta 0,8546 dolarrera kotizatzen zen. EBZren esku-hartzearen ondorioz 0,8625 dolarrera igo zen, baina berehala jaitsi zen eta 0,8574an amaitu zuen eguna.

Dibisa merkatuak atzo Estatu Batuetara begira zeuden, zer gertatuko zain: teorikoki, Bush euroari laguntzearen kontrakoa da eta aditu batzuen iritziz, irabaziz gero euroa 0,8112ra jaitsiko litzateke. Goizaldean Bushen garaipena iragarri zenean, euroak atzoko beharadarik handiena izan zuen, baina berreskuratu egin zen apur bat, azken emaitza airean gelditzean.

Zalantzasu beteriko egoeran, eguerdi aldera EBZk esku-hartzea burutu zuen eta



HERIBERT PROEPER/AP

Win Duisenberg buru duen EBZren iritziz dibisa merkatuek ez dute islatzen euroaren benetako balioa

ezustean harrapatu zituen dibisa merkatuak.

Hala ere, irailaren 22tik aurrera buruturiko beste esku-hartzeen modura, berehalako aldaketak baino ez zituen eragin atzokoak. Une batez, euroak 0,86 dolarreko muga psikologikoa iragan bazuen ere, handik ordubetera berriro jaitsi egin zen eta ez zuen zuzendu 1999ko urtarriletik dolarrarekiko izan duen %27ko galera.

Sirka Hamalainen, EBZko Batzorde Exekutiboko kideak «pazientzia» eskatu zuen. Europako Banku Zentraleko buruzagien arabera euroa azpibaloratua dago eta esku-hartzeekin ekintzaren bitartez frogatu nahi dute euroaren benetako balioa.

Sirka Hamalainenen aburuz, dibisa merkatuek ez dute gaizki jokatuzen baina epe laburreko ikuspegiarekin jokatzen dutenez, EBZren ikuspe-

giaren aldean, euroarekiko beste balorazio bat dute.

Euroak 2000. urtean dolarrarekiko bizi izan duen behar kadaren atzean Estatu Batuetako ekonomiaren sendotasuna dago. Hala ere, azken hiru hilabeteetan EEB-Betako Barne Produktu Gordinaren hazkundeak gelditu egin da. Analisten iritziz, geldiera baietsiz gero, dolarren ahuldadeak euroaren sendotasuna eragingo du.

**Behargin bat hil da Pasai Antxon eraikuntza batean lanean ari zela erorita**

■ Aste honetan Euskal Herrian eraikuntza sektorean lan istripuz hil den bigarren langilea da

Erredakzioa / Donostia

LEZOKO 45 urteko langile bat hil zen atzo arratsaldean Pasai Antxon obra batean lanean ari zela sei metroko altueratik N-1 errepidera erorita. N-1 errepideko karril bat itxita egon zen gorpua jaso zen artean. Promociones Suquia enpresako Francisco Javier Lopetegi Zabala beharginaren heriotza eragin zuen lan istripua segurtasun neurrien faltagatik jazo zela adierazi zuen atzo CCOO sindikatuak. «Langileak gaizki jarrita zegoen egurrezko taula zapaldu eta jausi egin zen. Ez zegoen segurtasun sarerik, ez barandarik ezta eusteko segurtasun arnesik ere». CCOOk gaur eguerdiko 12:30etarako kontzentrazioa deitu lan ezbeharra jazotako obraren parean.

Aste honetan Euskal Herrian eraikuntza sektorean lan istripuz hildako bigarren langilea da atzokoa, asteartean Zaldibiako behargin bat hil baitzen Elgetan obra batean lanean ari zela.

Bestalde, atzo 24 urteko Oiongo behargin batek zauri larriak nozitu zituen oraindik argitu ez den lan ezbehar batean.

## «Euroaren jaitsierak eragina izan dezake munduko ekonomian»

■ HILABETERO atera ohi duen buletinean Europako Banku Zentralak adierazi zuen euroaren balore aldaketek ekar ditzaketen ondorioak munduko ekonomia kezkatzeko adinako arrazoi direla.

EBZren iritziz, euroaren gorabeherak munduko ekonomiarentzat dakartzan arriskuen inguruan kezka sortu du. Hala ere, uste du euroaren erungo balioak ez duela islatzen euro eremuko herrialdeen sendotasun ekonomikoa.

EBZk adierazi zuen azpibalorazioak eragina duela euroaren eremuko ekonomian inportazioen

prezioek gorantz egiten baitute.

Bestalde, EBZren iritziz gerta liteke, itxura batean, erregaien prezioaren gorakada eta euroaren jaitsieraren ondorioz inflazioa %2ko muga iragatea eta orain hilabete batzuek pentsatzen zena baino denbora gehiagoz iraungo duela horrek.

Hala ere datu horren aurrean lasaitasuna eskatu zuen Europako Banku Zentralak, epe erdira moneta politika mantenduko duela iragarri eta erregaien gorakada bati aurre egiteko herrialdeak prest daudela esan zuen.

BASAUARIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE BASAURI  
48970 BASAURI (BIZKAIA)

**EKONOMI ARLOA  
ZERGEN KUDEAKETA ETA IKUSKARITZAKO ATALA  
IRAGARKIA**

Basauriko Udaltzatik, 2000ko urriaren 31n egindako ohiko bilkuran, beste zenbait erabakirekin batera, hurrengo hauek hartu zituen:

Behin-behineko onespina ematea 15. Zerga Ordenantzen aldaketa jasotzen duen dosierari, horiek arautzen baititu bai euskararen irakaskuntzari, bai etbez etxeko eta hirugarren adinekoentzako laguntzari, bai kultura eta kirolari dagozkion zerbitzuak eskeintzeagatik ezarrita dauden Tasak.

Behin-behineko onespina ematea dosier orokorari, hor agertzen baita 2001eko ekitaldiko Zerga Ordenantza eta Prezio Publikoetan jasota dauden tarifa eta tasen aldaketa. Hau guztiau argitaratzen da, intresatuek espedienteak aztertu eta egoki litzekien errekamazio eta iradokizunak aurkezteko aukera izan dezaten, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialan argitaratzen den biharamunetik hasita HÖGEITA HAMAR laneguneko epean, horrela baitago aurrikusia Toki-Ogasuna arautzen duen ekainaren 30eko 5/89 Foru-Arauren 16. Artikuluan eta Toki-Erregimenekei Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. Artikuluan.

Epe hori agortutakoan, Udaltzatik aztertu egingo ditu aurkeztutako errekamazio edo iradokizunak, eta egoki litzekien behin betiko erabakiak hartuko ditu. Errekamaziorik ez balitz aurkeztuko, ordurarte behin behinekoa litzatekeen erabakia, handik aurrera behin betikoa izango da.

Basauri, 2000ko azaroaren 6a.  
ALKATEA,  
Izpta: Rafael Ibarguen González

**SEASKA, Euskal erakaskuntzarako Batasunak,  
2000-2001 ikasturterako**

**LEHEN MAILAKO ORDEZKARIAK**

bilatzen ditu:

**Bete behar diren baldintzak:**

- II. heineko diploma (Baxoa + 3 urte).
- Euskaraduna.
- Frantsesaren ezagutza.
- Esperientzia oinarriko hezkuntza orokorreko erakaskuntzan.

Interesatuak diren pertsonak, Seaskara igor dezatela,

**2000ko Azaroaren 18a aintzin:**

- Kandidatura gutun bat C.V. batekin.
- Diplomen kopiak.
- Telefono zenbaki bat, deitua izateko gisan.

**SEASKA - Central Forum - Pontots Bidea - 64100 BAIONA Cidex**

Tel: 05.59.52.49.24 Faxa: 05.59.52.88.87